

TEKNOLOGIA

GDPR lau urte ondoren



DIANA FRANCO

Jokabideen datuak merkatuen lehengai bezala erabiltzeko ibilbide batean izan gara azken hamar urteetan. Gizartea ezagutzeko eta gizartean eragin eta balioa sortzeko aukerak ematen dituen lehengai da datua, eta beraz botere harremanetan eragin handia izan dezake.

Jokabideen datuen azterketak onurak ekarri ditzake, adibidez autobusa hartzeko jokabideak aztertuz autobusen maiztasuna indartu dezakegu pertsona gehiago dagoen uneetarako. Baina jokabideen azterketaren etekina bestelakoa izan daiteke: ekonomikoa edota politikoa, botere metaketara bideratua.

Europar badugu lege bat, horren inguruan pausoak ematen hasi zena orain dela lau urte: GDPR (General Data Protection Regulation, Datuak Babesteko Lege Orokorra). Bada, lege horren eta datuekiko merkatu dinamikaren inguruan azterketa egin du Esku-bide Digitalen Europako Zentroak, eta honako ondorioa partekatu du: datuen industriak GDPR legearekin bizitzen ikasi du, bere negozio dinamikan aldaketa sakonik egin gabe.

Hona azpimarratu dituen bi ideia. GDPR oraindik ez da guztiz ulertzen, eta mehatxutzat hartzen da eragile askoren alde-tik, babesten dituen oinarrizko eskubideak gutxiesten direlako. Legea ez betetzearen kontrola gero eta zailagoa bihurtzen ari da, digitalizazio teknologien gardentasun faltak eta dinamikak direla-eta.

Interesatzen zaidan beste ideia bat da datu pertsonalen izaera aldatzen ari dela, eta zentzu horretan, GDPRk izan behar duela garai hauetarako lege bizia.

Datuen -eta aztertzen diren jokabideen-oinarrizko eskubideak eremu digitalean ezartzea ez da erraza izango, dugun digitalizazioari forma ematen diotenean sortzen duten teknologia gehiena datuen ustiapenera bideratuta dagoelako. Beraz, GDPR eta beste lege batzuk atzetik ibiliko dira beti. Horregatik, eskubide hau defendatzen ikasi behar dugu, bai dagoena erregulatuz, bai GDPR datuen izaeraren ustiapen eredueta- ra egokituz. Eta baita teknologia eta digitalizazioa modu etikoagoan ulertuko duten eredu ezberdinak sortuz ere. ●

NAZIOARTEA



Estolda mediatikoen azkena

AXIER LOPEZ

2016ko maiatza. Hilabete inguru falta da Espainiako Erresuma-ko hauteskunde orokorretarako. Unidas Podemos, urte horretan sortu zenetik, ondo kokatuta zegoela zirudien Espainiako Gobernuan eragiteko. Komunikabideetan era guztietako eraso eta erasoak ageri ziren ia egunero alderdiaren eta haren buruzagien aurka. Horietako bat izan zen alderdiko buru Pablo Iglesias Turriónen izenean, Granadetako Uhartetean, paradisu fiskal batean, irekitako banku kontu batean Nicolás Maduroren gobernuak 272.000 dolar ustez sartu izana; beti ere *OK Diario*ko egungo zuzendari Eduardo Inda eskuindar iruindarrak zabaldukoaren arabera.

Iglesiasen aurkako akusazioak epaitegietan inolako ondorioz izan ez zuen arren, hedabide eta sare sozialetan beste pieza bat izan zen orduko eskuindarren kontakizuna indartzeko: Podemos bozkatzeari chavismoari botoa ematea da. Eta hala erabili zuten, nahiz eta egun baten buruan zenbait hedabidek Indaren gezurra agerian utzi.

Sei urte geroago, asteburu honetan, *Crónica Libre* hedabideak argi zegoena berretsi du: asmatutako amarrua zen. Espainiako Estatuko aparatu parapolizialen estolderietako aurpegirik ikusgarrienaren zenbait audio filtratu du hedabideak. Audio horietan José Manuel Villarejok Antonio García Ferrerarekin hitz egiten du, La Sexta kateko zuzendariarekin.

Kazetariaren eta Guardia Zibileko koronel ohi ustelaren arteko kolegoa harrigarria da. Horrez gain, audioetan Villarejok eta Terrorismoaren eta Krimen Antolatuen aurkako Inteligentzia Zentroko zuzendari José Luis Oliverasek diote gai izango liratekeela "banku kontu faltsuak sortzeko, Iglesiasen edo beste edozein pertsonaren izenean".

Kazetari batek nolatan zabal dezake berari gezurra iruditzen zaion informazio bat, argi eta garbi Espainiako estolda politikoa eta mediatikoetatik ateratako *fake news* tankera osoa zuena? Delituaren ustezko egi-leak publikoki gezurtatu behar izatea nahikoa da jendearengan zalantza sortzeko eta eskuin mediatikoaren kontakizuna puzteko; kasu honetan, "Espainiaren aurkako mehatxu nagusia zen" Podemosen eragina kalte-tzeko. Kazetari batzuek gezurra dabilte horretarako ahalmena eman dietelako, inon idatzi gabeko zigorgabetasunaren jabe direlako.

Asko hitz egin da Espainiako sistemaren eta haren estolden ustelkeria endemikoaz, baina gutxi aipatzen da, eta, batez ere, gutxi egiten da aparatu mediatiko parapolizialen aurka. Multinazionalen eta lobby politikoen jabe diren komunikabide nagusien boterea demasekoa da Espainiako Estatuan, baina dirudien ez dago esku hartu nahi duen agintaririk panorama mediatikoa demokratizatuz. Kazetari-tza libre, independentea eta askotarikoa ez bada, ez baita demokraziarik. ●